

UPV/EHUko GERENTEAREN 2017ko URRIAREN 16ko ERABAKIA, "TEKNIKARI ESPEZIALISTA (MEKANIKA -III. Taldea)" LAN-POLTSA OSATZEKO HAUTAKETA-PROZESUA BEHIN BETIKOZ EBAZTEKO DENA. LAN- POLTSA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ALDI BATERAKO BEHARREI ERANTZUTEKO DA.

UPV/EHUko gerentearen 2016ko otsailaren 19ko erabakiaren bidez dei egin zen, "Teknikari espezialista (Mekanika -III. Taldea)" lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesua egiteko, administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren berezko premiak aldi baterako bete daitezzen.

Deialdiaren zazpigarren oinarriak ezarritakoarekin bat etorrira, hautaketa-prozesua behin amaiturik, epaimahaiak ordenatu zituen lehiakideak, eta proposamen hori 2017ko irailaren 13an eman zen argitara seigarren oinarriaren seigarren atalean zehaztutako tokietan eta, honen ondoren, deialdiak dioenari jarraiki, zerrenda igorri da Gerentziara prozesua ebazten duen behin betiko erabakia eman dezan.

Epaimahaiaren erabakiaren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahal zitzaien EHUko gerenteari, erabakia argitaratu eta hilabeteko epean.

Erreklamazio egiteko zabalduetako epean ez da helegiterik aurkeztu. Beraz, Gerentziak, errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- "Teknikari espezialista (Mekanika -III. Taldea)" lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesuaren emaitzak onartu eta behin betikotzat jotzea, epaimahaiak proposaturiko ordenazioaren arabera, 2017ko irailaren 13an argitaratuta.

Bigarrena.- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, baina interesatuak berraztertze errekurtsioa aurkez diezaioke Gerentziari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jar dezake zuzenean administrazio- auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean. Erabakia UPV/EHUren web orrian (Administrazio eta zerbitzuetako langileak, Hautaketa eta Hornikuntza) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontatzen epe horiek.

Leioan, 2017ko urriaren 16an.

Errektoreak 2017ko urtarrilaren 25ean eskuordetutako eskumenak erabilita (2017ko otsailaren 3ko EHAA)

GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Artetxe

